

Izenburua	<i>XXI. mendeko euskara (Tribuaren Berbak)</i>
Formatua	Sekuentzia didaktikoa
Egilea	Kike Amonarriz, Iñaki Retegi, Josune Zabala eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa.
Nori zuzendua	DBHko ikasleei
Helburuak	<p>Azken hamarkadetan euskarak izan duen bilakaeraren ondorioz sortu diren hiztun mota desberdinak eta euskaraz hitz egiteko dauden maila eta modu desberdinak aztertuko dira ikasleek jakin dezaten zergatik hitz egiten duten hitz egiten duten bezala, arreta berezia jarriz kode-nahasketan. Hizkera mota horiek euskaratik nola aberastu daitezkeen ere aztertuko da.</p> <p>Sekuentziaren amaieran, Youtuberrek bezala, talde bakoitzak bideo bat grabatuko du ohikoak dituzten erdal hitz eta esamoldeen ordeztu euskarazko proposamenak eginez, ikusleei adieraziz gaztelaniara jo gabe lor daitekeela adierazkortasuna euskaraz. Bideo guztiak <i>Youtubeko</i> kanal batean bilduko dira.</p>
Metodologia	<p>Metodologia kooperatiboa: ikasten ari diren berdinaren arteko interakzioa garrantzitsua da benetako ideien elkartrukea eta eztabaida sustatzeko; hau da, adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzeko. Beraz, lan eta esfortzu indibidualaz gain, talde lana funtsezkoa da, gizabanakoak besteekin elkarri eragiten ikasten baitu.</p> <p>Ikasketa kooperatiboa honako printzipioetan oinarritzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Elkardependentzia positiboa. ● Aurrez aurreko interakzioa. ● Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa. ● Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.
Denboralizazioa	8 saio
Eranskinak	Materiala eskuragarri:

	https://tribuarenberbak.asmoz.org/01-jarduera4.html
Oharrak	<ul style="list-style-type: none">• Sekuentziaren lanketa egiteko beharrezkoa den material guztia sarean eskuragarri dago: sekuentziak, lan-koadernoak eta irakaslearentzako gida didaktikoak.• <i>Tribuaren Berbak</i> 10 sekuentzia biltzen dituen sekuentzia didaktiko sorta da. Irakasleak erabaki dezake material horietako bakarra, batzuk edo denak erabiltzea. Sortzaileen aldetik, egokia ikusiko lukete DBHko maila bakoitzean 3 sekuentzia erabiltzea (ebaluazio bakoitzeko bat, adibidez).